



**ARANTZAKO UDALA**

www.arantza.eu

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 634 192  
arantza.udala@terra.es

## **2012KO ABUZTUAREN 30EKO BILERAREN AKTA**

**Organoa:** Udalbatza.

**Batzarra:** Biler berezia.

**Deialdia:** Lehenengoa.

**Eguna:** 2012.08.31.

**Ordua:** Arratsaldeko 18:00etan.

**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia.

### **Bertaratuak:**

Alkatea: Jaime Iturria Mitxelena jn.

Zinegotziak:

Imanol Artola Guridi jn.

Ander Almandotz Indakoetxea jn.

Koldobike Gorostiza Uriguen and.

Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.

### **Bertaratu ez direnak:**

Jose Ignacio Madariaga Vergara jn., lanangatik.

### **Idazkaria:**

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

### **Aztergaiak:**

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.-Herriko argiteria moldatzeko diru laguntza.
- 3.-Lesakako Udalaren mozioa.
- 4.-Alkatearen ebazpenak.
- 5.-Eskaerak eta galderak.

### **1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.**

2012ko abuztuaren 2an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

### **2.-HERRIKO ARGITERIA MOLDATZEKO DIRU LAGUNTZA.**

Arantzako Udalak diru laguntza eskatu zuen herriko argiteria publikoan energia aurrezteko Nafarroako Gobernuak argitaratutako bi deialdietan oinarrituta:

-215/2012 EBAZPENA, otsailaren 29koa, Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko toki entitateei diru-laguntzak emateko deialdia eta haren oinarri arautzaileak onesten dituen, 2012ko ekitaldian Tokiko Agenda 21eko ekintza planak (proiektuak edo ekintzak) ezartzeko.

-02528DGE/2011 EBAZPENA, abenduaren 15ekoa, Enpresaren eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, argiteria publikoan energia aurrezteko 2011-2012 kanpainako jarduketetarako diru-laguntzen deialdia onesten duena.

Nafarroako Gobernuak bi eskaerari diru laguntza eman dio Arantzako Udalari herriko argiteria publikoan energia aurrezteko, Virgilio Musgo Garde teknikariak egindako proiektuaren arabera.

Kontuan hartuz obrak esleitu behar direla eta bukatuak egon 2012ko azaroaren 30erako.

Ikusirik 2012ko aurrekontuan ez dagoela partidarik aurreikusi inbertsio hau egiteko.

Ikusirik esleipena egiteko prestatutako espedientea eta dokumentazioa.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren alorretan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearekin bat etorriz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) 2012ko aurrekontuaren aldaketa hasiera batez onartzea.
- 2) Aldaketa jendaurrean jartzea ikusgai hamabortz egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, bizilagun edo interesdunek aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.
- 3) Obrak esleitzeko proiektua eta espedientea onartzea.
- 4) Baldintza ekonomiko-administratiboko plegua onartzea, publizitate gabeko prozedura negoziatua erabiliz eta eskaintza onuragarria aukeratzeko irizpideak onartzuz.
- 5) Proposamenak gutxienez 3 enpresei eskatzea, gonbidapena bidaliz.

### **3.-LESAKAKO UDALAREN MOZIOA.**

Ikusirik Lesakako Udalak bidalitako mozioa Beñat Atosarrasagasti Ordoñez jaunaren atxiloketa dela eta.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Aipatutako mozioa onartzea, hau da:
  - Eskatzea Beñat Atorrasagasti Ordoñezen gaineko bi euro-aginduak ez daitezela onartu eta ez dadila estraditatu izan Estatu Espainiar eta Frantzesera.
  - Eskatzea Beñat Atorrasagasti aske uztea eta itzul dakizkiola dagozkion eskubide guztiak, hala nola nahi duen tokian bizitzea eta lan egitea bere bizi normala eginez, bai lan bizia bai familia bizia, bermatuz egoera honek eragindako kalteen ordaina eman diezaiotela.
- 2) Akordio hau Lesakako Udalera bidaltzea.

### **4.-ALKATEAREN EBAZPENAK.**

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2012ko 71etik 73. arte).

### **5.-ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez dira egin.



**ARANTZAKO UDALA**

[www.arantza.eu](http://www.arantza.eu)

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)

☎ 948 634 005

📠 948 634 192

[arantza.udala@terra.es](mailto:arantza.udala@terra.es)

Bertzerik gabe, gaueko 19:15ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,

Jaime Iturria Mitxelena jn.



